

# 6 / 6

Zenbaki honek produktuaren arriskua adierazten du. Arrisku txikiaren adierazlea 1/6 da; eta handienarena, 6/6.

Salmenta edo aurreratutako indargabetzerik ez da posiblea edo galera nabarmenak ekar ditzake.

! Erraza ez den finantza produktua, ulergaitza gerta daitekeena.

Egoitza Herbeheretan duen sozietate anonimoa da Triodos Bank NV; kreditu-erakunde gisa lan egiteko baimena du, eta, gaur egun, Europako bost herrialdetan ditu sukurtsalak. Bankuaren kapital soziala akziotan banatuta dago, eta akzio horiek guztiak bazkide bakar batek ditu harpidetuta, Triodos Banken Akzioen Administrazioako Fundazioak (SAAT, nederlanderazko siglaren arabera), horrela, bankua- ren misioa babesteko, SAATEk bere gain baititu akzioen eskubide politikoak.

Bankuaren kapitalean inbertitzaile partikularren eta instituzionalen parte-hartzea ahalbidetzeko, Akzioen Gordailu Ziurtagiriak (AGZ) jaulkitzen ditu fundazioak, hots, akzioen bidez trukatu ezin diren titulu negoziagarriak. AGZ bakoitza bat dator bankuaren akzio batekin, eta barne-merkatuan negoziatu daitezke, oinarritzat hauxe hartuta: transmisio-prezioak AGZ bakoitzaren azpian dagoen akzioaren une horretako kontabilitateko ondare-balioaren berdina izan behar du. Prezioa horrela finkatzeko arrazoia AGZ horiekin espekulatzeko bideak eragozte da, horien gainean egiten diren transakzioak prezio objektibo bat oinarri hartuta egingo direla bermatzen baita horrela.

AGZk inbertsio-produktuak dira, ez banku-aurrezkien esparruko produktuak. Horregatik, berorietan egiten den inbertsioa ez du babesten Gordailuak Bermatzeko Funtsak edo antzeko beste erakunde batek. Jaulkipenen herrialdean (Herbehereak), AGZen tratamendua konplexuak ez diren produktuei dagokiena da. Espainian gure bezeroei produktuaren egokitasunari buruzko balioztapena egiten diegu, egokitasun test baten bidez.

AGZek beren titularrei eskubide hauek esleitzen dizkiete:

- A. Bankuaren akzioen eskubide ekonomikoak.
- B. Akziodunen Urteko Batzar Nagusira joateko eskubidea, eta baita batzar horretan beren adierazpenak egitekoa ere.
- C. AGZen Titularren Urteko Batzarrera joateko eskubidea, eta fundazioaren patronatuko kideak (Triodos Bank NVko Batzorde Betearazlearen proposamenez izendatutakoak) berrestekoa.

## AGZ-EKIN LOTUTAKO ARRISKU-ELEMENTUEN LABURPENA

### ERRENTAGARRITASUNA

AGZen errentagarritasuna bankuaren akzioen errentagarritasunari lotuta dago. Beraz, Triodos Bankek ekitaldi bakoitzean izaten dituen emaitzen mende dago. Errentagarritasun hori aldakorra da, eta errentagarritasunik ez izatea ere gerta daiteke, bankuak etekinik ez badu; izan ere, ezin izango litzateke etekinik banatu, eta, etekinik banatu ezenean, ez litzateke AGZen balioa handituko. Errentagarritasun histori-koa positiboa izan da, nahiz eta iraganeko errentagarritasunek ez duten inoiz bermatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

### SEGURTASUNA

Bankuaren emaitza ekonomiko negatiboen (galerak) kasuan, AGZ bakoitzaren balioa/prezioa, funtsean bankuaren akzio bakoitzaren kontabilitate-balio garbiarekin bat datorren balio edo prezio hori, murriztu egin daiteke, eta, hortaz, inbertitu den diruaren zati bat edo guztia galdu daiteke, AGZen balioa Triodos Banken ondare-balioaren mende baitago. Bankuak galerak izanez gero, AGZen balioa murriztu egingo litzateke, eta AGZen eskuratze-kostuaren azpitik koka liteke balio hori. Aukera negatibo hori Burtsan eskuratutako akzioekin ere gertatzen da, baina, Burtsakoen kasuan, hori ez dago soilik akzioak jaulkitzen dituen enpresaren ondare-balioaren mende, merkatuen gorabeherek eta espekulazioek ere badute zeresanik horretan. AGZen balioa handitu egin da urtez urte, baina hori ez da inolaz ere bermea uneren batean balio hori galduko ez dutela ziurtatu ahal izateko.

### LIKIDOTASUNA

AGZek ez dute kotizatzen bigarren mailako merkatu ofizialetan, jaulkitzailearen (SAAT) ordezkari hartuta Herbeheretan bankuak berak (Triodos Bank NV) kudeatzen duen AGZen merkatuan soilik eros edo sal baitaitezke. Triodos Bank NVren Espainiako sukurtsala AGZk multilateralean kotizatzen duten beste produktu batzuen baina mugatuagoa da, horiek jende guztiari zabaldua baitaude, oro har, eta antolatutako bigarren mailako merkatuetan kotizatzen baitute. AGZen eta Burtsan kotizatzen duten akzioen eta gainerako inbertsio-pro- duktuen arteko beste desberdintasun garrantzitsu bat zera da: AGZk espekulazioaren aurkako neurrien eraginpean daude, eta, neurri kontabilitate-balioarekin bat dator prezio hori. Horregatik, ezin da salmenta-prezioa jaitsi saldu nahi denean eta produktua berehala likido egin nahi denean (bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten akzioekin, aldiz, egin daiteke horrelakorik). Hala ere, likidotasunaren ikuspegitik, AGZek badute abantaila bat: Triodos Bankek berak erreserba ekonomiko bat du (buffer), Akziodunen Urteko Batzarrean onartzen den diru kopuru bat, bankuaren kapitalaren % 2koa. Buffer hori AGZk saldu nahi dituzten titularrei AGZ horiek erosteko erabil dezake Triodos Bankek, eta, beraz, produktua berehala likido egiteko aukera dute. Gero, AGZ horiek horrelakoak erosteko interesa duten hirugarrenei eskaintzen zaizkie. AGZk erosteko likidotasun-gordailu horrek muga kuantitatibo bat du, **eta Triodos Bankek bere esku gordetzen du aipatu helbururako erabiltzeko eskubidea; beraz, gerta daiteke titularrak AGZk saldu nahi izatea eta salmenta hori berehala ezin gauzatu izatea.**

**Baldin Triodos Bank NV konpainia Europako edo Espainiako araudian (Europar Batasuneko 806/2014 Arautegia, eta 11/2015 Legea, kreditu erakundearen eta inbertsio zerbitzuetako enpresen berreskuratze eta ebazpenari buruzkoa) jasota dagoen kreditu erakundearen ebazpenerako prozesu berezi batean sartuko balitz, gerta daiteke AGZen balioa —aipatu araudiko erregimenari atxikita dauden inbertsio produktu aseguratugabeak direnez— zeroraino murriztea. AGZek, horrelako prozesuetan, bankuko gordailuen lehentasuna izango lukete. Horrenbestez, gerta daiteke AGZk, inbertsioa berreskuratzeari dagokionez, azken tokian izatea.**

Data: 20\_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_

Eskatzailearen sinadura

NAN: \_\_\_\_\_

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_